
KATUTXO ETA ELURRA

Testua: JOEL FRANZ ROSELL

Ilustrazioak: CONSTANZE V. KITZING

Itzulpena: MANU LÓPEZ GASENI

Azal gogorrean koadernatua. 23 x 16 cm. 32 or. 11 €.

Katutxo eta elurra (euskaraz)

ISBN 978-84-7681-745-2. Kalandraka-Pamiela.

Gatito y la nieve (gaztelaniaz)

ISBN 978-84-92608-67-6. Bildumatik kanpo.

Gatíño e a neve (galegoz)

ISBN 978-84-8464-807-9. Bildumatik kanpo.

En gatet i la neu (katalanez)

ISBN 978-84-15170-24-2. Kalandraka-Hipòtesi.

Gatinho e a neve (portugesez)

ISBN 978-989-8205-89-6. Livros para sonhar.

Little Cat and the Snow (ingelesez)

ISBN 978-84-8464-808-6. Books for dreaming.

...Egun hartan elur asko egina zen.

Hotza egiten zuen, baina Untxitxo, beroki zuri iletsua zuela,
eta Katutxo, beroki beltz berotsua zuela,
epel-epel zebiltzan...

...Elurra bezain zuriak, ikatza bezain beltzak, Katutxoren eta
Untxitxoren arteko adiskidetasuna, pertsonak bezalaxe, aldi berean
berdinak eta desberdinak izan daitezkeen bi espezieren arteko
integrazioaren paradigma da. "Katutxo eta baloia" hark
eskuzabaltasuna, elkarbizitza eta adiskidetasuna bezalako gaiak
ukitzen dituen bitartean, "Katutxo eta elurra" honek eguneroko
arazoei aurre egin behar dieten bi adiskide aurkezten dizkigu; arazo
horien irtenbide irudimentsuak jolasaren bitartez topatzen dituzte
bi lagunek, elkar ezagutzen eta errespetatuz.

Hala, Katutxo sotoan jolasteko beltzegia denez, eta Untxitxo
elurretan jolasteko zuriegia denez, azkenean zoriak esku hartu
du biak baldintza berdinetan jolastu ahal izateko. Katutxoren
saileko emanaldi berri honetan norbere buruaren ezagutza eta
aniztasunaren balioa bezalako gaiak ere nabarmentzekoak
dira, hori guztia testuaren freskotasuna, elkarrizketa-egitura eta
ilustrazio alaiak direla medio.

Pintzelkada leun eta kolore bizien bitartez, ilustrazioek Katutxo
eta Untxitxoren adierazkortasuna eta eszenatokiak
deskribapena azpimarratzen dituzte, bi pertsonaien abentura
berri honetan.



- **Galak:** adiskidetasuna, jolasa, integrazioa.
- **Gomendatutako adina:** 5 urtetik aurrera.
- **Alderdi azpimarragarriak:** "Katutxo eta baloia" (KALANDRAKA/Pamiela) obraren egile berberena; berdintasuna, kulturantzatasuna, negua, jolas tradizionalak.

Joel Franz Rosell

(Cruces, Kuba, 1954)

Idazle, ilustratzaile, kritikari, irakasle eta kazetaria. Kuba, Brasil, Danimarka, Argentina, Espainia eta Frantzia bizi izan da, umeentzako hainbat liburu idazten zituen bitartean. Haren obra batzuk telebista, irrati, komiki eta fotonobela, antzerki eta ahozko kontakizunetarako egokituak izan dira, batez ere haren jaiotze herrialdean. Kritika eta saiakera lanak ere argitaratu ditu Europa, Asia eta Amerikako egunkari eta aldizkarietan. Beste aitoren batzuen artean, honako hauek jaso ditu: The White Ravens (Alemaniako Jugendbibliothek) 1996 eta 2005ean, La Rosa Blanca saria (Kubako Idazle eta Artisten Elkarte) sei aldiz 1995 eta 2005 bitartean eta Cherburg Hiriaren saria (Frantzia, 2001ean). KALANDRAKA argitaletxean, sail honetako bi albumez gain, "El paraguas amarillo", "Pájaros en la cabeza" (La Rosa Blanca saria, 2005, The White Ravens, 2006) eta "Don Agapito, el apenado" ere argitaratu ditu. <http://elpajarolibro.blogspot.com/>

Constanze v. Kitzing

(Göttingen, Alemania, 1980)

Ilustraziogintza ikasi zuen Hamburgetako Zientzia Aplikatuaren Unibertsitatean, Minneapoliseko Arte eta Diseinu Eskolan eta Weimar Unibertsitatean (Bauhaus). Sorkuntza lantegietan parte hartzen du eta europar argitaletxe zenbaitetan argitaratu du. Bere eskuko ilustratzailea izateaz gain, alemaniar Der Spiegel aldizkariako diseinu sailean ere lan egiten du. Boloniako Haur eta Gazte Liburuaren Nazioarteko Azokak haren lana aukeratu zuen 2010ean. 3x3 Children's Show 2011n (AEB) eta CJ Picture Book Award 2011n (Korea) sariak jaso ditu. <http://www.constanzevonkitzing.de/>

www. **kalandraka** .com
comunicacion@kalandraka.com

www. **Pamiela** .com
etxea
soltxate@pamiela.com